



Ramon Etxezarreta

♦ PSE-EEKO KIDEA

Zigorra

EZINAREN MUGATIK ahalik eta urrutieneko bizimoduko egiturak sortu, sendotu eta iraunaraztea izango da erreformismoaren, ez dakit, helburua ala lanerako modua. Ez dadila ezina gugana hurbildu, ez gaitzala ezinak harrapatu, ez dadila gutaz jabetu, baina ezina, egon badagoela eta, arrisku gorria dela, betiere, jakinean egonik. Eta ezina etorri egin da, bertan dago, eta nahi genukeena nahi bezala egitea zaildu egin zaigu, guztiz ezinezko bilakatu ez esateagatik.

Ezina asmazio huts bat, bazterrak beldurtu, mantsotu eta otzantzeko asmakeria erdeinagarria besterik ez dela diotenak beti izan dira ugari. Espainian demokrazian sartu ginenetik gure artean espezimen hori ugaritzen joan dela segur nago eta, hemen, euskal herrietan ugariago dela esango nuke. Ezina mamutzat hartu dutenak, ukatu egin dutenak, hemen egituratuta bizi izan dira. Nola husten zituzten beren mihi zikin lerdetsuak “erreformista” iraina botatzen ziguten kaiku ahalenek!

Kontua da ezin horren aitor-tzan, ezina bere osotasunean etxean sartu zaigula kontatzera-koan, beldurra eragin eta zabal-tzerakoan, gero eta adostasun handiagoko elkarbizitza adostu dutela kontserbadurismo-rik gorrienak eta sozialdemokrazia-rik agerikoenak. Ondorioz politikagintzarekiko zegoen fede urria ia erabat galdu da. Historian erro demokratikorik izan ez dugun herriok, ez gara, oraindik, demokrazia ikasle pattal batzuk besterik. Diktadura desagertu zenetik gure arteko askok demokrazia eta politikagintza bazterrak nahastera zetozen

kontu zikin kontsideratu zituzten. Isilik eta tranpan egotea erosoago zitzairen herritar baten eskubide eta beharkizunetan zintzo zailtzea baino. Antipolitika instalatu zen gure artean. Abertzaletasunak ez du horretan ardura gutxi izan, jende asko baitago abertzaletasuna, edozein abertzaletasun, egoera natural eta berezko bat dela uste duena eta abertzaletasuna ez den oro politika dela, jendea gaiztotzeko tresna artifizia zahar bezain pozoitsua.

*Politikagintzarekiko
zegoen fede urria ia
erabat galdu da.
Historian erro
demokratikorik izan ez
dugun herritarrok,
ia guztiok, ez gara,
oraindik, demokrazia
ikasle pattal batzuk
besterik*

Podemos jaio, indartu eta gaineratu da Espainia osoan politikagintzaren ustelkeria eta baliorik ezaren arazoizko ustetan oinarrituta, politikagintza “klasi-koa” ukatuz. Hemen, Euskal Herrian, ere, nire uste guztien kontra, badirudi presentzia sendoa duela. Gure arteko politikaren ukatzaileak ezkutatu edo boteratu zirelakoan nengoen, baina nonbait herritar asko galdetza ari dira egin eta lortu dutenak, alderdi klasiko bat gehiago bilakatu ote diren eta horregatixe arazoei iraun egiten ote duten. Zein eta zeinentzat ote hemengo zigorra? ■

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK



Imanol Lazkano

♦

Ama gaitzat hartuta, ama eta haurrak duten elkarren arteko lotura eta amaren gozoa aipatuz, ARGIArako egin nituen bertsoen ondoren, zenbaitek, neure alaba tarteko, bota zidaten:

- Eta aita, zer? Beti bezala libre.

Hara hemen horren erantzuna hiru bertsoetan:

Emakumeen bularrak eta gizonezkoen paparra, bereizte hutsa omen da berez pekatu astun samarra. Barka mesedez pasatu badut berdintasunaren marra, amari nion miresmena da nire arrazoi bakarra.

Aita baldar bat izana naiz neu karga ezin dut arindu; nahiago nuen amak beraren antzeko egin banindu, baina txintxoan izanda ere eta gogoz ahalegindu, amarengan den goxotasuna ezingo nuen berdindu.

Ta orain kezka, nire jarduna nahiko matxista ote zan, batzuek behintzat ez dira egon erantzuteko perezan. Utzi natura bere gisara nahi duena esan dezan, ta entzun tentuz, naturak ez du sekula gezurrik esan. ■